



LIBURUAK BERRERABILTZeko PLANA

Ekonomia zirkularraren ildo jarraituz, gure eskolako DBH-ko 3., 4. eta Batxiko liburuak berrerabiltzeko plana jarri nahi dugu martxan. Alferrikako gastua aurrezteaz gain, liburu gutxiago erabiliko ditugu, honek suposatzen duen guztiarekin (paper, ur eta energia gutxiago erabiltzea).

Horretarako, ikasturte bukaeran Batxi eta DBH 3. eta 4. mailako liburuak (testu liburuak, zein irakurketa liburuak) jasotzea pentsatu dugu eta hurrengo ikasturteko ikasleen esku jarri.

PLANA:

-Batxiko ikasleen liburu batzuk jasota badaude ere, email bat aginduko diegu, oraindik ere etxean dituzten liburuak ekartzera gonbidatzeko. Apal bat dago Batxiko atezaintzan liburu horiek jasotzeko.

-**DBH:** ekainaren 15ean, gaindituta duten ikasgaien liburuak, liburutegian utziko dituzte, 1.orduan.

Ez ohiko azterketak izanez gero, ekainaren 22an utzi ahalko dituzte, 10etan.

-**Guztientzat:** ekainaren 22an, 12etatik aurrera, liburu barriak batzera etortzeko aukera izango dute ikasleek.

***OHARRA:**

Jasotako liburu kopurua, liburuak hartu nahi dituzten ikasleena baino txikiagoa den kasuetan, liburuak utzi dituzten ikasleek izango dute lehentasuna.